

Atzo arratsaldean Barakaldoko Gazte Asanbladaren hitzordu berri bat izan genuen. Oraingo honetan gaztetxe berria zabaltzeko asmoz. Horretarako San Bizente parketik kalejira bat atera zen gaztetxera abiatu zena, musikaz girotua. Kalejira gaztetxera heldu zenean, honek bere ateak zabaldu zituen jendea barrura sartu ahal izateko. Behin barruan, duela 5 urteko oroitzapen asko gogora etorri zitzaien bertaratutakoei. Gazteek lokala mundu guztiarentzako zabaltzeko eta auzoarekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu zuten. **Barruan BIDEOA**.

**Igandea (19.30) - Makala II-ko asanbladako lagunek twitter bidez Ertzainak gaztetxera bertaratu direla azaldu dute. Gazteak identifikatzen ari dira.**

alt=""
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/dVGjrwD-kGs','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',
{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});